
DONOSTIAKO CAMPUSAK "PARKEA MUSIK FEST" HARTUKO DU OSTEGUN HONETAN PARKE TEKNOLOGIKOETAKO ENPRESETAKO PROFESIONALEZ OSATUTAKO HIRU TALDEREN EMANALDIEKIN

Ekitaldia edonorentzat irekia eta librea izango da, eta Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkeko Eraikin Nagusian egingo da, 17:00etatik aurrera.

"Parkea Musik Fest" edizio hau girotuko duten hiru taldeak Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko enpresetan lan egiten duten pertsonak osatzen dituzte, eta eszenatokian beren talentu musikala erakutsiko dute.

Datorren ostegunean, urriak 13, Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkean ["Parkea Musik Fest"](#) ekimenaren beste edizio bat egingo da. Ekimena Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak sustatu du, langileen talentu sortzailea ezagutarazteko eta lan-eremua esperientzia sozial eta kulturaletara irekitako bizi-ekosistema bihurtzeko.

Ekitaldia Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkeko Eraikin Nagusian egingo da. 17:00etan happy hour-a eta lehenengo kontzertua hasiko dira eta ondoren gainerako taldeek joko dute, rock eta indie rock estilokoak. Saioa: "Grezians" taldearekin (17:00) hasiko da, ondoren, "Igara Roosters" (17:45) eta, azkenik, "Carlos Tego" (18:15) arituko dira. Taldeetako kide batzuk CEIT eta KREAN Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkeko enpresetan ari dira lanean.

Ekitaldia Jon Gómez Garaik aurkeztu eta dinamizatuko du, eta bertaratzen direnentzako janari- eta edari-postu bat egongo da, "happy hour"-arekin 17:00etatik 18:00etara. Horrez gain, amaierako DJ saioa, kultur eta kirol ekitaldietarako sarreren zozketak eta Parkeetako langileentzako bonu gastronomikoak egongo dira.

Parkea Musik Fest duela sei urte martxan jarritako "Parkerako Erronka bat" programatik sortutako ekimena da. Hiru edizio egin ziren Donostiako eta Zamudioko Campusetan, pandemiaren ondorioz bertan behera utzi behar izan

Parke

EUSKADIKO
PARKE
TEKNOLOGIKOAK

aurretik. Aurten berreskuratu egin da, Gasteizko, Zamudioko eta Donostiako campusetan egindako jaialdiekin, eta urriaren 20an [Leioako Campusean](#) beste deialdi bat dago aurreikusita.